

IIP (PAI) ebaluazioa edo puntaren punta baizik ez aztertzea

Hezkuntzako zuzendari nagusi Roberto Pérez Elorzak Parlamentuan adierazi duenez, British / IIP programaren ebaluazioa egin da Nafarroan programa horretan Lehen Hezkuntzako 6. mailan diharduten ikasleen lagin batekin. Beraz, hausnartu beharko da azterketa egiteko moduz, aztertze hautatu den laginaz, alegia. 2015-16 ikasturtean 81 ikastetxe publikok zerabilten ingelesa irakas-hizkuntza gisa: horietako 75ek IIPren arabekoak ziren eta 6k baizik ez British programaren arabekoak. Baina Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak baino sartu ez direnez, British programako 6 ikastetxeak eta IIPko programako 3 baizik ez ditu aztertu txostenak.

Kontua da ikastetxe horietan programa ezarri zela klaustroaren adostasunarekin eta askoz baliabide gehiagorekin. British ikastetxeetan bereziki laguntzeko irakasleak jarri ziren; berariazko eta kalitatezko prestakuntza eman zitzaizen irakasleei eta ingelesa ezarria dagoen herrialdeetara bidaien zati bat ordaintzen zitzaizen hizkuntza horretan gehiago gaitzeko. Ber gauza gertatu zen IIPren hasieran Atarrabiako eta Zizur Nagusiko eskoletan, ez programa gero ezarri zen ikastetxe gehienetan. UPNk murrizketa basatiak hasi zituenean, ikastetxe gutxik izan zituen British programak baliatutako laguntzak. Hortaz, funtsezkoa da aztertzea azken urteetan sartu diren eskoletako programen emaitzak, balorazio zehatzagoa lortzeko, ezin izan baitute aipatutako baliabiderik erabili.

Gainera, arakatu diren 9 ikastetxetik zortzi hiri ingurunean daude, familiek ISEK oso altua duten tokietan (Indize sozio-ekonomiko kulturala). Esaten dutenez, British / PAI programan ebaluatuko ikasleen antzeko ezaugarri sozioekonomikoak dituzten ikasleak hautatu dira kontrol talderako, baina ez dugu haien jatorriaren berri. Nolanahi ere, aldagai horiek eragin handia dute eskola emaitzetan eta IIP programak dituzten Nafarroako eremu askotan ez dago horrelako baldintzarik.

Ebaluazio taldeari harrigarri suertatu zitzaion, orobat, British ereduko ikasle ugari ez etortzea probak egiteko egunean, baita pertsona salbuetsien kopuru handia ere. Etorri ez zirenetan, erdia baino gehiago British eredukoak ziren, laginaren herena baizik osatzen ez dutenean. Ikasle horiek egunero parte hartzen badute ikasgeletan, ebaluazioetan sartu behar dira. Bestela ez da biltzen gure eskolen ezaugarriak islatzen dituen laginik.

Horregatik Steilasek uste du ebaluazioa egiteko hautatutako laginak ez duela islatzen gure Komunitateko hezkuntzaren errealitatea, planteamenduan ageri duen desbideraketatik; beraz, emaitzak ezin zaizkie Nafarroako ikasle guziei aplikatu. Aurreko ikertetan, konparaziora Carlos III.a Unibertsitateak mamitutakoan, ikusten zen ikasleen emaitzetan eragin handia zutela faktore

sozio-ekonomikoek eta emaitzik okerrenak ateratzen zituztela ISEK baxuagoa zuten irakasleek.

Bestalde, ados gaude Hezkuntza Departamentuarekin: programak gabezia larriekin abiatu ziren (Steilasek salatu zituen), baina aurrera atera dira irakasleek ikasgeletan egin duten ahalegin eskergari esker. Zoritxarrez Gobernuak ez du asmatu hezkuntza programak aztertzean, desbideratu egin da. Gainera, funtsezko datuak alboratu ditu eta, azkenean, tresnak eman dizkie UPNri, Ppri eta PSNri Gobernuari erasotzeko. Kezkatsu gaude Mendozaren hitz batzuekin, ziotenak aukerakoa izanen zela IIP programan jarraitu edo ez. Diotenez, hizkuntzak ikastea arrunt garrantzitsua da; beraz, gutxieneko xede komun batzuk behar dira ikasle guztientzat, hizkuntza planen bidez gauzatuko direnak ikastetxe bakoitzean, eta modu bateratuan landu beharko dira hizkuntza berekiak eta atzerrikoak. Gainera, nahitaezkoztat jotzen dugu horretarako gogoan izatea hezkuntza agenteek parte hartu behar dutela. Uste dugu tamalgarria dela hurrengo leku-aldatze lehiaketan lanpostu gehien-gehienak ingelesaren eskakizunarekin ateratzea, IIP programa eta Atal Elebidunak nola egituratuko diren jakin aurretik, kontuan harturik eskakizun hori ez duen irakasle askori egin lekioken kalte gaitza.

Arantxa Ruiz Vidorreta
Amaia Zubieta Garciandia
Raul Lopez Ekai

Steilas sindikatua

